



# BEHATZ MARGOAK KOTOI ZOTZEKIN

---

Gaur proposatzen dizuegun ekintza oso erraza da, familia osoak egin dezake eta tarte dibertigarria pasako duzue.

## Beharko ditugu:

- Behatz margoak (tenperak)
- Ontzi txikiak
- Kotoi zotzak, belarrietarako erabiltzen direnak
- Kolore eta tamaina ezberdinetako kartoi meheak



Ekintza honekin ez dugu gehiegi zikinduko, baina lasaiago ibiltzeko, mahaia egunkari paperez edo plastikozko mahai zapi batetik babestuko dugu.

Proposamena prestatuko dugu:

- Ontzietan margo pixka bat jarriko dugu, gutxirekin nahiko izango da. Bukatzen den heinean, gehiago bota dezakezue. Kolore bakoitzarentzako kotoi zotz bat izango dugu.
- Kartoi mehe gehiago izango ditugu prest badaezpada, gustura baldin bagaude ekintza luzatuko daiteke.

Ekintza honekin, kontzentrazioa lantzen da, trazuaren behaketa, eskuen mugimendua zuzentzea eta kontrolatzea ahalbidetzen da, erlaxatzeko eta gozatzeko aukera dugu.

Baina kontu izan, margoa ez da jateko!

## AHOLKUAK

Hemen duzuen proposamena margo eta kartulina txuri beltzekin egin dugu, baina etxean nahi duzuen koloreekin egin dezakezue.

Kolore diferenteeekin egin behar baduzue, poliki-poliki aurkezten joan zaitezke, eta kolore bakoitzak kotoi zotz bat izan dezala, gero proposamena aurrera Joan ahala, etorriko dira edo ez nahasketak.

Kartulinen kolore eta tamainarekin jolastu dezakezue.

Behin bukatuta, lehortzen utzi eta nahi baduzue, atzetik beste kartulina bat jarri dezakezue marko bat izango balitz bezala, paretak apaintzeko koadroa eleganteak!!

Oso politak geratuko dira ziur, baina garrantzitsuena ongi pasatzea eta frogatzea da.

Besarkada handi bat, zaindu zaitetze.

